

liteke, Lateñi edo Estadu bat baño geiago sortuaz?... Ostera ¿Lateñirik bai ote Sorterñi bat baño geiagoz osatua?—Bai; bata ta bestea ditezke. Ingalandar-sajoniañak (anglo-sajonak) jatorñi berekoak dira; alaz guziaz ere, bi Lateñi (edo Estado) egin ditu jatorñi bakar oñek: Ingalanda (Ingalateña) ta Lateñi Elkartuak (Estados Unidos). Ostera: Eñusia'k—garai batekoak batez ere—bazitun gutxienez amar abenda edo kasta, baña guziak lege beraren azpian; au da: Sorterñi asko, ta Lateñi bat.

11. Oñetara-etzkeroko ¿bai ote-liteke Sorterñia, Lateñi izateke, besteren uztarpean gertatzea?—Bai, alegia. Ikusi; bestela, Euzkadi (Euskaleña), lapondañen eña, ta beste.

12. Eta oñela bizi dan Sorterñiak ¿bere buruaren jabe egiteko, au da, berez Lateñi edo Estadu berezia osatzeko, eskubiderik ez al-du?—Bai; bete-beteko eskubidea izan ere, arik-eta arotzaren mendean gogoz etsi ez duan arte, beintzat.